KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA

I. KAPITULUA

KONTZEPTU OROKORRAK

1. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honen xede den kontratua kontratu pribatua da eta ez da erregulazio harmonizatukoa, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) 20.1. artikuluan xedatutakoaren arabera –lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora–.

Beraz, kontratuak honako hauek arautzen dute:

- Prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, SPKLaren 115etik 187ra bitarteko artikuluek, biak barne, SPKLaren 318.b artikuluan xedatutakoaren arabera, Klausula Administratibo Partikularren Agiri honetan ezarritakoak eta bere Karatulako zehaztapenak, eta baita esleipendunarekin izenpetuko den kontratuan dauden itunak eta baldintzak ere.

- Kontratuaren betearazpenari, ondorioei eta iraungipenari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauek. Gainera, 319. artikuluak dio aplikatzekoa izango zaiola Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrei buruzko 201. artikuluan, kontratuak egikaritzeko baldintza bereziei buruzko 202. artikuluan, kontratua aldatzeko kasuei buruzko 203tik 205era bitarteko artikuluetan, kontratuak lagatzeari eta azpikontratatzeari buruzko 214tik 217ra bitarteko artikuluetan eta kontratazioaren arrazionalizazio teknikoari buruz 218tik 228ra bitarteko artikuluetan xedatutakoa eta baita 198.4 eta 210.4. artikuluetan finkatutako ordainketa-baldintzak ere. Halaber, aplikatzekoa izango zaio kontratua suntsiarazteko kausa baldin bada prestazioa ezin ematea hasiera batean itundutako baldintzetan, kontratua ezin denean aldatu SPKLaren 204., 205. eta 211 i) artikuluei jarraituz.

Agiriaren baldintzak, hura osatzen duten dokumentuak edo aplikatzekoa den araudia ez ezagutzea ez da salbuespen izango lizitatzailea kontratuaren betebeharrak ez betetzeko.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xede izango da Agiri honen Karatulako "A" ATALEAN adierazten den zerbitzua, Preskripzio Tekniko Partikularren Agirian dauden zehaztapen teknikoen arabera.

3. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren gehienezko prezioa eta kontratuaren balio zenbatetsia Karatulako "C" ATALEAN daude, eta ez batak ez besteak ez dute barne balio erantsiaren gaineko zergarik (BEZ).

Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.

Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Agiri honetan adierazitako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen teknikarien ordainsariak, bisak, etab.).

Esleipendunak ordainduko ditu kontratua ondo gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak, eta beraz, OARSOALDEA SAk ez ditu ordainduko, Preskripzio Tekniko Partikularren Agirian zehaztutakoarekin bat etorriz.

4. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen "D" ATALEAN zehazten dena beteko da.

5. GAUZATZEKO EPEA

Lanak egiteko epea Agiri honen Karatularen "I" ATALEAN adierazitakoa izango da. Hala ere, horrek ez du eragotziko lanak kontratua formalizatu baino lehen hasi ahal izatea.

Preskripzio Teknikoen Agirian lanak egiteko epe osoa gutxitzeko aukera ematen bada edo epe partzialak finkatu eta jarduerak ordenatzen badira, nahitaez bete beharko dira horrela eskainiz edo finkatuz gero, hurrenez hurren.

Karatulako "N" ATALEAN hala aurreikusten bada, kontratuaren amaieran, bi aldeen adostasunez, kontratua luzatu ahal izango da hasieran aurreikusitakoaren berdina edo txikiagoa den beste aldi batez prestazioak ematen jarraitzeko.

6. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

(i) lehen fasean ("Eskaintzen aurkezpena"), lizitatzaileek A, B eta C izeneko hiru artxibotan aurkeztuko dute dokumentazioa;

(ii) bigarren fasean ("Kontratistaren hautaketa"), eskaintzak aztertu ondoren, OARSOALDEA SAk kontratua formalizatzeko lizitatzailea hautatuko du; eta

(iii) hirugarren fasean ("Formalizazioa"), OARSOALDEA SAk eta hautatutako lizitatzaileak kontratua sinatuko dute.

OARSOALDEA SAk eta kontratistak men egingo diote informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioari, Agiri honetan ezarritako moduan.

Kontratazio-organoa Karatulako "B" ATALEAN azaldutakoa izango da.

II. KAPITULUA

LIZITAZIOA ETA ESKAINTZEN PRESTAKETA

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteko epea zabalik egongo da Karatulako "E" ATALEAN adierazitako epe eta ordura arte

Proposamenak Karatulako "F" ATALEAN adierazitako lekuan aurkeztu beharko dira.

Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute, edo, hala badagokio, zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratuetarako kontsulta-batzordeak emandako ebazpen bidez. Hori guztia egiaztatzeko, kontratazio-dokumentu europar bakarraren eredua erabiliko da beti eta nolanahi ere.

Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresa-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, SPKLaren arabera. Enpresa-taldeko enpresek beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatutako moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean (III. ERANSKINA) adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkatuko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, OARSOALDEA SAren aurrean. Enpresa horiek guztiek aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute (HAKLEOko 24. artikulua). Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiek izenpetu behar dute adierazitako agiria.

Lizitatzaileek ezin izango dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, Agiri honetako Karatulako "J" ATALEKO eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Eskaintza bat aurkezteak esan nahi du enpresak agiri honetako klausulak eta gainerako kontratuko dokumentu guztiak baldintzarik gabe onartzen dituela, eta aurkeztutako datu guztiak zuzenak direla eta OARSOALDEA SArekin kontratatzeko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Izaera konfidentziala. Beharrezkotzat jotzen baldin bada, enpresa lizitatzaileak, sekretu teknikoak edo komertzialak direla eta, izaera konfidentzialtzat hartzen dituen informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, II. ERANSKINEAN agertzen den ereduaren arabera, eta hori egiteko arrazoiak azalduko ditu. Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak ez du izaera hori izango. Hirugarren batek lizitazio-proposamen bateko dokumentaziora sartzea eskatzen badu, OARSOALDEAk lizitatzaileak egindako konfidentzialtasun-adierazpena baloratuko du.

8. PROPOSAMENEN EDUKIA

Eskaintza izenpetuta dagoen artxibo batean aurkeztuko da, Karatulako goiburukoan azaltzen den espediente-zenbakia, lizitatzailearen izena, eskaintza izenpetzen duen pertsonaren izen-abizenak eta izenpetzen duen izaera adierazita. Agiri honen xede den lehiaketarekin lotutako komunikazioetarako eman den helbide elektronikoa zehaztu beharko da.

Artxibo baten barruan, hiru artxibo sartuko dira. Horietako bakoitzak ondo identifikatuta egon beharko du, A artxiboa (Kontratazio-dokumentu europar bakarra, IV. Eranskina eta V. Eranskina) zein den, B artxiboa (Proposamen Teknikoa) zein den eta C artxiboa (Proposamen Ekonomikoa) zein den bereizi ahal izateko.

Horietako bakoitzaren barruan agiri hauek sartuko dira:

– A artxiboan, Kaudimena izenekoan, behar bezala betetako, sinatutako eta datatutako Kontratazio-dokumentu europar bakarra egongo da. OARSOALDEAk online zerbitzuaren bidez emandako eredua erabiliko da Euskadiko kontratatzailearen profilean erantsita dauden argibideak jarraituz.

Kaudimenaren zati bat lizitatzailea ez den beste pertsona bati egokitzen zaionean (azpi-kontratazioa), azpi-kontratatutako pertsonak/ek bereiz bete beharko du/dituzte kontratazio-dokumentu europar bakarrak.

Lizitatzaileak azpikontratatuko dituen lan atalak zehaztuko ditu, eta guztira eskainitako aurrekontuaren aldean azpi-kontratazioa zer ehuneko den eta erakunde azpi-kontratisten ezaugarri teknikoak zeintzuk diren adierazi beharko du.

Halaber, "IV. Eranskina – Ingurumen-konpromisoaren adierazpena" eta "V. Eranskina – Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-deklarazioa", biak hala biak behar bezala beteta eta sinatuta.

Enpresa eskaintzaileek pendrivea itzultzeko eskatu ahal izango diote OARSOALDEAri lehiaketaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo 15 egunetan. Hori egiten ez badute, pendrivea eskuratu nahi ez dutela ulertuko da, eta ondorioz, OARSOALDEAk euskarria ezabatu eta bulegoko material gisa berrerabiliko du.

I., II. eta III. eranskinak kasu hauetan soilik beteko dira: banku-abala behar denean, konfidentzialtasun-klausulak ezartzen direnean eta aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzen denean.

A eta B artxiboetan ez da proposamen ekonomikoarekin zerikusirik duen ezer sartuko. Bestela, eskaintza ez da onartuko eta lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko da.

B artxiboan behar bezala sinatutako eta datatutako proposamen teknikoa egongo da. Lizitatzaileek OARSOALDEA SAk agiri honetan zehazten diren balorazio-irizpideen arabera balorazioa egin ahal izateko behar duen dokumentazio guztia jaso beharko dute beren proposamen teknikoetan.

C gutun-azalean, Eskaintza Ekonomikoa izenekoan, proposamen ekonomikoa egongo da (ereduarekin bat etorriko da) paperean, behar bezala sinatuta eta datatuta. Proposamen bakarra izango du aurkeztutako eskaintza bakoitzeko, lizitatzaileak aurkez litzakeen oinarria edo

barianteak edo alternatibak izan, Agiri honen Karatulako "J" ATALEAN horrela aurreikusten denean. Eskainitako prezioaren barruan kontzeptu guztiak egongo dira, ezarri ahal zaion edozein zerga edo gastu barne, balio erantsiaren gaineko zerga salbu, zeina partida independente gisa azalduko baita.

Zenbakiz eta hitzez jasotako kopuruaren artean desadostasunik balego, azken hori gailenduko da.

Ez dira onartuko OARSOALDEA SAk eskaintzarako funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsuneak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak.

III. KAPITULUA

ESLEIPENDUNA AUKERATZEA, ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

9. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da SPKLan ezarritako moduan.

Kalifikazioa Kontratazio Organoak edo honek SPKLaren 61.2 artikuluaren babesean izendatutako Batzorde Teknikoak egingo du.

Kontratazio-dokumentu europar bakarra aurkezten ez bada edo osorik bete gabe aurkezten bada, ez da Lizitatzailea onartuko. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikuluak araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Posta elektronikoa erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatzaileak eskaintzan adierazitako e-postako helbidea.

Hala badagokio, kontratazio-dokumentu europar bakarra konpondu ondoren, eskatutako kaudimena dutela adierazi duten eskaintzaileen B artxiboak –proposamen teknikoak– irekiko dira, Klausula Administratibo Partikularren Agirian ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera, onartutako proposamen bakoitzaren balorazio objektiboa eta inpartziala egiteko.

Ondoren, Kontratazio Organoak edo honek SPKLaren 61.2 artikuluaren babesean izendatutako Batzorde Teknikoak c artxiboak –proposamen ekonomikoak– irekiko ditu, kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan.

Artxiboak zabaltzeko ekitaldi guztiak ez dira jendaurreko edo publiko izango.

Kontratazio Organoak edo honek SPKLaren 61.2 artikuluaren babesean izendatutako Batzorde Teknikoak lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuen kalifikazioaren berri emango du. Onartu eta baztertu diren proposamenak zeintzuk diren eta azken horiek baztertzeko arrazoiak zeintzuk diren azalduko du eta, jarraian, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko eskaintzei emandako puntuazioak irakurriko ditu. Jarraian, proposamen ekonomikoak ireki eta irakurriko dira.

Proposamen ekonomikoak ireki eta irakurri ondoren, horiek kontuan hartuko dira lizitatzaile bakoitzaren balio-iritziaren menpe dauden irizpideen balorazio-txostenarekin batera. Txosten hori Kontratazio Organoak izendatuko duen Batzorde Teknikoak egingo du.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen duten proposamenak automatikoki baztertuko dira.

Baztertutako proposamenen eskaintzak kontratua esleitzeko prozeduratik kanpo geratuko dira eta B artxiboa ezin izango da ireki.

10. IRIZPIDEAK ETA KONTRATISTA AUKERATZEA

OARSOALDEA SAk, betiere esleipena egin aurretik, uko egin ahal izango dio kontratua egiteari, edo atzera egin ahal izango du esleipen-prozeduran, kontratua prestatzeko arauetan eta esleipen-prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin den arau-hausteren bat egin bada.

Eskaintzak baloratzeko oinarrizko irizpideak Karatulako "L" ATALEAN adierazitakoak izango dira.

Balio ezohiko edo neurriz kanpokoei dagokienez, Karatulako "L" ATALEAN adierazitakoa beteko da.

Bi proposamen edo gehiago berdinduta egonez gero, SPKLaren 147. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Kalitate-prezio hoberena duen eskaintza aurkeztu duen esleipenduna hautatzeko gehienezko epea bi (2) hilabetekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatzaileek, egoki irizten badute, beren proposamena kentzeko asmoa dutela adierazi ahal izango dute.

Kalitate-prezio hoberena duen eskaintza aurkeztu duen pertsona hautatu ondoren eta kontratua formalizatu aurretik, lizitatzaile horrek SPKLaren 150. artikuluan eskatutako agiri hauek aurkeztu behar dizkio OARSOALDEA SAri gehienez hamar (10) egun balioduneko epean:

a) Kontratazio-dokumentu europar bakarrean adierazitako aurretiko kaudimen-eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duen agiria.

b) Eskaintza izenpetzen duen pertsonaren nortasun agiria.

c) Eraketa-eskritura eta estatutu aldaketakoa, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan edo aplikatzekoa den araudiaren arabera inskribatu beharreko erregistroan inskribatuta.

d) Lizitatzaileak ordezkari bidez jarduten duenean, ordezkaritza dagoela eta ordezkaritza horrek lizitatzeko eskumenak dituela egiaztatzen duen agiria.

Agindutakoa adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza kendu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapen-ordenaren arabera.

Enpresa lizitatzailea Sektore Publikoko lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistroan inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu bateko datu-base nazional batean agertzen denean, enpresaren espediente birtual moduan, dokumentuen biltegiratze-sistema elektroniko baten moduan edo aurrekalifikazio-sistema baten moduan, eta OARSOALDEAk horietan doan sartu daitekeenean, ez da behartuta egongo aipatutako toki horietan inskribatutako datuei buruzko egiaztagiririk edo frogagiririk aurkeztera.

Kontratatzeko debekuak ez izateari, gaitasunari eta kaudimenari buruzko inguruabarrak eskaintza aurkezten den azken egunean bete beharko dira, eta kontratua egin arte iraun behar dute.

OARSOALDEA SAk, Kontratazio Organoaren ebazpen bidez, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun baliodunen barruan esleituko du kontratua. Esleipenak, zeinak nolanahi ere SPKLaren 151. artikuluan adierazitako alderdiak izango dituen, arrazoitua izan beharko du, eta lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie posta elektroniko bidez, eta, hala badagokio, kontratatzailearen profilean argitaratuz.

Kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

e) Zerga-betebeharrak:

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak emana, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori Administrazio horren aurrean aurkezteko betebeharrik ez duela dioen ardurapeko adierazpena.

- Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiek emandakoa, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrik ez duela dioen ardurapeko adierazpena.

f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak:

- Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren Lurralde Altxortegiak emandakoa, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo salbuespenen bat duela dioen ardurapeko adierazpena, eta lan egin behar duen/duten pertsona/pertsonak Gizarte Segurantzan alta emanak daudela ziurtatzen duen agiria.

g) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: Jarduera ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela eta ordainketetan egunean dagoela frogatzen duen egiaztagiria, eta azken ekitaldiko ordainketa-gutunaren kopia. Zerga hori ordaintzetik salbuetsita egotekotan,horren gaineko justifikazio-aitorpena.

h) Aseguru enpresak egiaztatuta:

- Aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Karatulako "P" ATALEAN finkatzen diren baldintzen arabera.

i) Behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztagiria: Karatulako "H" ATALEAN hala aurreikusi baldin bada.Bermea banku-abal bidez eratuko da. I. ERANSKINEAN dagoen ereduaren arabera egingo da eta jatorrizkoa OARSOALDEA SAn gordeko da.

j) Aldi baterako enpresa-elkartearen formalizazioaren eskritura: Hautatutako kontratista aldi baterako enpresa-elkartea izatekotan eta enpresa-taldeari emandako IFZ.

11. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratuaren formalizazioa lizitatzaileari eta gainerako lizitatzaileei beren eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta gehienez hamabost (15) egun balioduneko epean egingo da.

Kontratuaren formalizazioaren bitartez, OARSOALDEA SAk kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfekzionatzen da.

Kontratua lizitatzaileari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, OARSOALDEA SAk behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, lizitatzaileak OARSOALDEA SAri kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa (%3) izango da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horrek sortutako gastu eta zerga guztiak hautatutako pertsonak ordaindu beharko ditu. Aldeetako edozeinek kontratuaren eskritura publikoa egitea eskatu ahal izango du, eta hori eskatu duen aldearen kontura izango dira horri dagozkion gastuak.

IV. KAPITULUA

KONTRATUA GAUZATZEA ETA IRAUNGITZEA

12. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua klausuletan eta baldintza-agirietan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio-jarraibideen arabera.

Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.

Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita OARSOALDEA SArentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

OARSOALDEA SAk ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldez aurretik baimendu ez duen ezein lan.

Lanak amaitzean, OARSOALDEAk horiek ebaluatuko ditu eta hornitzaileari jakinaraziko dizkio itxiera-bileran. Baloratu beharreko alderdiak izango dira itxaropenen betetze-maila, erritmoak eta epeak, hornitzailearen proaktibitatea eta gogobetetasun orokorra. Ondorio gisa, gutxienez indargune bat eta hobekuntza-arlo bat nabarmenduko dira.

13. KONTRATUA ALDATZEA

OARSOALDEA SAk SPKLaren 205. artikuluan adierazitako arrazoiengatik alda lezake kontratua.

Kontratuko aldaketen prezioa finkatzeko, kontratistak eskainitako prezioa hartuko da kontuan.

14. PREZIOAREN ORDAINKETA

Karatutako "D" ATALEAN prezioa ordaintzeko modua zehazten da, betiere OARSOALDEA SAk lanak hartu eta horiekin ados dagoela adierazi ondoren eta dagokion faktura aurkeztuta. Nolanahi ere, ez da inolako ordainketarik egingo kontratua sinatu arte

Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratistak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.
OARSOALDEA SAk eskubidea du baldintza-agiri honetan aurreikusten diren hutsegiteetan erortzeagatik kontratistari ezarritako zigorrak preziotik kentzeko.

15. EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO EDO GAIZKI BETETZEAGATIKO ZIGORRAK

Kontratista derrigortuta dago kontratua Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan plangintzan jasotzen dena ere.

Kontratista edozein epetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango OARSOALDEA SAk aldez aurretik ohartarazpenik egitea. OARSOALDEA SAk egiteke dauden ordainketetatik kenduz ezarri ahal izango ditu Karatulako "M" ATALEAN zehazten diren atzerapenei dagozkien zigorrak.

Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, OARSOALDEA SAk adostutako azken prezioaren %10eko zigorra ezar diezaioke edo kendu diezaioke ordaintzeke dauden prezioetatik.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, OARSOALDEA SAk lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %10 eskatu ahal dio.

Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten OARSOALDEA SAk kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta OARSOALDEA SAk kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

16. GAUZATZE-BALDINTZA BEREZIAK

Lan-baldintzak

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, segurtasunari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela

eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko OARSOALDEA SAk ez duela inolako ardurarik izango ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakiokeen lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

c) OARSOALDEA SAk hala eskatzen badio, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio.

Kontratistaren betebeharrak zerbitzuaren prestaziora adskribatutako langileei dagokienez

1. Zerbitzuaren prestaziora adskribatutako langileek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enplegatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu langileen gainean.

2. Kontratistak bakarrik aukeratu ahal izango ditu kontratua gauzatzera atxikitako lantaldea osatuko duten langileak –baldintza-agirietan exijitutako titulazio eta esperientzia eskakizunak bete beharko dituzte (titulazio eta esperientzia eskakizun zehatzak finkatzen diren kasuetan)–. Hala ere, horrek ez du eragotziko "erakunde kontratatzaileak" eskakizun horiek betetzen ote diren egiaztatu ahal izatea.

3. Kontratistak lantaldea egonkorra izateko eta, aldaketarik izanez gero, bakanak eta arrazoituak izateko ahalegina egingo du, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko (exijentzia hau justifikatzen duten arrazoiak daudenean), eta aldioro informatuko dio "erakunde kontratatzaileari".

4. Kontratistak bere gain hartuko du kontratua gauzatuko duen lantaldearen gaineko zuzendaritza ahalmena, enpresa guztiei atxikitakoa, modu erreal, eraginkor eta etengabean erabiltzeko betebeharra. Bereziki, soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporren onarpena, baja edo hutsune kasuetan langileen ordezkapena, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak –dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne–, lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, baita langilearen eta enplegu-emailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak ere.

5. Kontratistak kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren lanean baldintza-agirietan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagozkion funtzioak besterik ez dituztela beteko zainduko du, bereziki.

6. Kontratistak bere bulego edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, non eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen, organismoen edo entitateen bulegoetan eman beharra baldintza teknikoen agirian edo agiriaren karatulan jasota eta espresuki baimenduta ez dagoen. Kasu horretan, erakunde kontratugileak langile publikoek erabiltzen dituzten espazioak ez bestelakoak utziko ditu kontratistaren esku, eta kontratistaren lana izango da bere langileek esleitutako kokapena errespetatzea. Kontratuaren xedeak zerbitzuak sektore publikoa osatzen duten erakundeetako lantokietan kokatutako ondasunetan edo instalazioetan etengabe ematea eskatzen badu, kontratistak, gainera, prestazioa ematen hasi aurretik, kontratua gauzatzera atxikitako langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela frogatu beharko du.

Baldintza orokorrak ingurumen-arloan

Kontratistak saihestu egingo du bere edo beraren azpikontratisten eragiketek inpaktu negatiboa izan dezaten natura-ingurunean edo animalia- eta landare-bizitzan, eta egin beharreko lanen ondorioz izan daitekeen edozein gorabehera edo kalte ekiditeko edo murrizteko behar diren neurriak hartuko ditu.

Kontratistak, lanak egiten diren bitartean, "INGURUMEN DEKLARAZIOAN" finkatzen diren konpromisoak bete beharko ditu.

Lanak amaitu ondoren, azkenean hartutako neurrien eta egindako joan-etorrien arabera, kontratistak datu hauek aurkeztuko dizkio OARSOALDEAri ingurumen-helburuak bete dituela justifikatzeko:

A.- Lanek iraun duten bitartean egin diren bilera presentzialen kopurua:

- Bileretara joaten diren pertsonen kopurua
- Generoa
- Erabilitako garraiobidea (zehaztu)
- Egindako distantzia (km)

B.- Lanek iraun duten bitartean egin diren audio/bideokonferentzia kopurua, Skype bidez egindakoak barne.

Emakumeen eta gizonen berdintasun-baldintza sozialak

Preskripzio teknikoen agirian zehaztutakoak.

Hizkuntza-baldintzak

Preskripzio teknikoen agirian zehaztutakoak.

Hirugarrenen baimenak

OARSOALDEA SAk bere kabuz egin ditzakeen kontratuak eta gestioak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu norbanakoen, elkarteen, enpresen eta erakundeen aldetik. Baimen horiek eskuratzeko kostua kontratistaren kontura izango da soil-soilik.

Konfidentzialtasuna

Informazio konfidentzialtzat joko da kontratatutako zerbitzua emateko kontratistak eskuragarri izango duen informazio pertsonal, tekniko eta/edo komertzial eta/edo bakuko eta/edo kontratuko informazio oro.

Kontratistak konpromisoa hartzen du modu konfidentzialean erabiltzeko halakotzat jotzen den informazio oro, eta agiri honetan azaltzen den xederako baino ez du erabiliko informazioa, edozein modutan hirugarrenei zabaldu, jendaurrean jarri, argitaratu edo eskura jarri gabe.

Kontratistak ahalik eta konfidentzialtasunik zorrotzenean gorde beharko du informazio hori, eta bere enplegatuei, bazkideei eta kontratistarekin duten harremanarengatik OARSOALDEA SArekin izenpetutako kontratuaren ondoriozko betebeharrak ondo betetzeko informazio hori ezagutu behar duten pertsonei ohartaraziko die isilpean gorde behar dutela.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratistak edo pertsonek ezin izango dute OARSOALDEA SAk kontratua gauzatzeko emandako informazio konfidentziala zabaldu, aldatu edo beste bati eman.

Aldez aurretik OARSOALDEA SAk baimena eman ezean, eman zaion edozein osagai edo dokumentu (informazio konfidentziala izan dezakeena) ez du erreproduzituko ezta kopiatuko ere kontratistak, zerbitzua emateko ezinbestekoa denean izan ezik.

Kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hala badagokio, kontratistak dokumentuak edo osagaiak eta kopiak, egotekotan, itzuli egingo ditu, kontratuaren lanak amaitu eta gero, eman zizkionak hala eskatzen badio.

Esleipendunak isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalte-galerengatik kalte-ordaina eman beharko dio OARSOALDEA SAri, legeriaren arabera lizitatzaileari egotzi ahal zaizkion erantzukizunez gain.

Datu pertsonalen tratamendua

ERAKUNDE KONTRATISTA arduratuko da datu pertsonalak enkarguz tratatzeaz, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudiaren, 95/46/CE Zuzentaraua (datuak babesteko araudi orokorra) indargabetzen duenaren, eta datu pertsonalak babesteari buruz aplikatzekoa den gainerako araudiaren arabera.

Tratamendu-eragilearen jarraibideak

Kontratuaren izaera eta norainokoa kontuan hartuta, ERAKUNDE KONTRATISTAk OARSOALDEA SAren enkarguz tratatuko dituen datuak kontratu honen xede den helbururako soilik erabiliko dira. Informazio hori OARSOALDEA SAren jarraibideen arabera tratatuko da soilik.

Konfidentzialtasun-betebeharra

ERAKUNDE KONTRATISTAk, tratamenduaren arduradun gisa, bermatzen du datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek espresuki hitzeman dutela konfidentzialtasuna errespetatuko dutela, eta datu horiek isilpean gordeko dituztela, baita horien helburua amaitu ondoren ere. Betebehar hori beteko dela dokumentatuta eta OARSOALDEA SAren eskura dago. Ez da daturik hirugarrenei jakinaraziko, OARSOALDEA SAren berariazko baimena eduki ezean.

Segurtasun-neurriak

ERAKUNDE KONTRATISTAk espresuki adierazten du neurriak eta mekanismoak jarri dituela:

- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen etengabeko konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia bermatzeko.

- Datu pertsonalen erabilgarritasuna eta sarbidea lehenbailehen berreskuratzeko gorabehera fisiko edo tekniko bat izanez gero, ezinbesteko arrazoiak salbu.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko hartu diren neurri teknikoen eta antolakuntzakoen eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko.

- Datu pertsonalak seudonimizatzeko eta zifratzeko, hala badagokio.

OARSOALDEA SArekin elkarlana betebeharrak bete direla frogatzeko

ERAKUNDE KONTRATISTA OARSOALDEA SArekin elkarlanean arituko da, eta beharrezkoa den informazio guztia jarriko du haren eskura datu pertsonalen babesaren arloan dituen betebeharrak bete dituela frogatzeko.

Azpikontratazio-erregimena

ERAKUNDE KONTRATISTAk ezin izango du azpi-kontratatu datu pertsonalen tratamendua eskatzen duten eta kontratu honen xedearen parte den zerbitzurik, eragilearen zerbitzuen funtzionamendu normalerako behar diren zerbitzu osagarriak izan ezik.

Tratamenduren bat azpikontratatu beharra egongo balitz, aurretiaz jakinarazi beharko litzaioke idatziz OARSOALDEA SAri, 10 egun baliodun lehenago, azpikontratatzeko asmoa dagoen tratamenduak zeintzuk diren zehaztuta eta azpikontratatuko den enpresa eta harremanetarako datuak argi eta zehatz emanda. Azpikontratatu ahal izango da OARSOALDEA SAk kontra dagoela adierazten ez badu ezarritako epean.

Azpi-kontratistak, tratamendu-eragile izaera ere izango duenak, dokumentu honetan TRATAMENDU-ERAGILEArentzat ezarritako eginbeharrak bete beharko ditu, baita OARSOALDEA SAk ematen dituen jarraibideak ere.

Hasierako eragile den aldetik, ERAKUNDE KONTRATISTAri dagokio harreman berria arautzea, eragile berriak ere baldintza berberak bete ditzan (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak, etab.) eta eskakizun formal berberak bete ditzan datu pertsonalen tratamendu egokiaren inguruan eta interesdun pertsonen eskubideen bermearen inguruan.

Azpi-eragileak baldintzak beteko ez balitu, ERAKUNDE KONTRATISTAk jarraituko du funtzioak betetzen, arduradunaren aurrean betebeharrak betetzeari dagokionez.

Interesdunen eskubideak

ERAKUNDE KONTRATISTAk OARSOALDEA SAri lagunduko dio eskubide hauei erantzuten:

- Sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka jartzeko eskubideei.

- Tratamendua mugatzeko eskubideari.

- Datuak tokiz aldatzeko eskubideari.

- Erabaki indibidualizatu automatizatuen xede ez izateko eskubideari, profilak egitea barne.

Interesdunek arestian aipatutako eskubideak baliatzen dituztenean ERAKUNDE KONTRATISTAren aurrean, honek berehala jakinaraziko dio hori OARSOALDEA SAri, eskaera horri erantzuteko garrantzizko informazioarekin batera.

Datuen norakoa harremana amaitu ondoren

ERAKUNDE KONTRATISTAk konpromisoa hartzen du enkargu honen ondorioz tratatuko dituen datu pertsonalak suntsitzeko, prestazioa bete ondoren. Hala ere, baimena eskatu beharko du idatziz kopia bat gordetzeko, behar bezala blokeatuta, zerbitzua gauzatzeagatik erantzukizunik etor daitekeen bitartean.

Lagapena eta azpi-kontratazioa

a) Kontratu honen xede diren zerbitzuen prestazioa ezin izango da hirugarren bati laga.

b) Agiri honen xede diren zerbitzu guztien edo batzuen azpi-kontratazioa soilik onartuko da OARSOALDEA SAk aurretik ados dagoela esaten duenean.

17. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Egindako lanak (fase guztietakoak) OARSOALDEA SAren jabetzakoak izango dira.

Agiri honetan aurreikusten den kontratazioaren bidez, OARSOALDEA SAk aplikazio industriala edo ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubide guztiak eskuratuko ditu, egungo legerian aurreikusten den eperik luzeenean.

Kontratistak OARSOALDEA SAk eskatzen dizkion agiri guztiak sinatu behar ditu aipatutako eskubide guztiak eskuratzeko.

Kontratistak ezin izango du erabili kontratuaren xede diren lanen ondoriozko dokumenturik, diseinurik, irudirik, jasotako informaziorik edo daturik, OARSOALDEA SAk aurretik idatzizko baimena eman ezean.

18. KONTRATUAREN ARDURADUNA

OARSOALDEA SAk kontratuaren arduradun bat izenda dezake aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, SPKLaren 62. artikuluan ezarritako moduan.

19. KONTRATU IRAUNGITZEA/SUNTSIARAZTEA

Hasieran aurreikusitako epea bete delako iraungiko da kontratua.

Hauek dira kontratua bertan behera uzteko arrazoiak:

- SPKLaren 211. eta 313. artikuluetan aurreikusitakoak.

- Prestazioa hasieran itundutako moduan ematea ezinezkoa bada, kontratua 204. eta 205. artikuluen arabera aldatu ezin denean.

- Azpi-kontratazioaren arloko eginbeharrak ez betetzea.

- Kode Zibilean adierazitakoak.

20. INPUGNAZIOA, JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu hau prestatzean edo esleitzean plantea daitezkeen auziak erabakitzeko, administrazio-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Errenteriako Udalaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Hiru milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten obra-kontratuetan, eta ehun mila eurotik gorako balio zenbatetsia duten hornidura-kontratuetan eta zerbitzu-kontratuetan, errekurtso berezia aurkeztu ahal izango da SPKLaren 44. artikuluko 2. atalean adierazitako egintzen aurka.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia, zeina SPKLaren 44. artikuluan arautzen den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen aurkeztu behar da, eta ez da egokia, bere esparruaren barruan, administrazio-errekurtso arruntak jartzea.